

ARANTZADUNAK

Udako egun bero baten, mundu asko ikusitako gizon bat Auñamendi'ko artzain bategaz berbetan egoan eta biok ezagutzen ebezan landarak ebezan autu-gai.

Batek auxe esan eban:

– Nik Madagaskar'en izugarrizko arantzaz estalduta egoan zugatz batzuk ikusi nebazan, "didierak". Onein arantzak gramofonoaren orratz lez erabilten ebezan, ain ziran gogorak! Ugarte beratan egoaldean indibaba-ondo aundi bat egoan eta au ikutu ezker azkura aundia sortzen zan.

Besteak auxe gaiñeratu eban:

– Gure eremuetako sasiak eta otak be ba-daukez olako gezi eta eztenak .Batzuk azkurea emoten dabe eta beste batzuk asuna baiño mingarriagoak dira. Asuna bera be udabarrian izaten da mingarriagoa. Baiña izadiak jakintsu jokutzen dau. Erre-miña dakarren asunaren alboan, geienetan zan-bedarra ipinten da osatzeko eta onen orri batek kentzen dau aren erre-miña. Ainbeste landara erremingarri ezagutzen doguzan ezker, esan egistazu, zertarako dauz izadiak ainbeste izkillu?

Euren buruak babesteko,- esan eutson besteak.. Orretan ez izan zalantzarik.Iñok ikutu edo jan nai ba'dauz, pentsau dagiala zer egitera doan.. Larrosak eurak be au esaten dabe:"Begira!Basamortuko landarak be euren buruak gezi ta azkonez estaltzen dabez, izerditu ez daitezzen eta bizidunak jan ez dagiezan. Bidez doanari oi u au egiten dautsoe:"Urreratzen ba'az, ziztatu egingo aut".

Besteak:

– Baiña ganbeluak jaten dabez indi-ikoaren aleak.Astoarentzat be janari gozoa dira. gardu-latzak. Eta astoa ez da ago-zuria. Txoritxuak larreetan egiten dau abia,mikea elorrira joaten da ezkutuan jateko,kana-ri-txoriak nasai jaten dauz azunak.

– Egia diñozu. Baiña eztenak babesteko ez ba'dira , xomorroak euren buruak etsaiengandik babestuteko, zergaitik alegintzen dira larrosa-arantzearen itxurea artzen? Eta artu be artzen dabe.

– Olantxe da ori. Begira, or oiñetan daukazun mordosko lodi orreri Mallorca'n "lumatxatxu" esaten dautsoe. Eztenez egindako pelota bat da. Arritu zaitez gure kardulatz urdiña edo "txorien ardautegia" esaten dautsen mota kontuan artuta.Beste izen bat be ba-dauko landara orrek: Kardulatz karlostarra. V Karlos'egandik datorko izen ori, gaiso-alde baten, ainbeste erail ondoren, landara onek osatu ebalako bere gudari-talde osoa. Ez da ona ardautegietarako,baiña bai aletegietarako. Esan begiez olakoak landarak maite dabezan beste askok.. Baiña goazen arin-arin etxera , kardulatz itxiten asi da eta orrek ba-daki laster euria datorrela.

Eta azkenez, artzain zarrak esan eban:"Auxe dogu mendian giroa igarteko biderik onena. Landara arantzadunak be laguntzaille doguz.

OLAZAR'tar Martin'ek



ZUGATZAK DOANGO LANGILLERIK ONENEK
DIRA:

GIZONEN ALDE GAU TA EGUN LANEAN
DIARDUE:

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ